



ATAZA - URDAIBAI

PROIEKTUAK.EUS - Gure naturagune babestuak



Lanaren nondik norakoak:

- Testuaren luzera 200 eta 250 hitz artean egongo da.
- Testuak lau atal izan beharko ditu, paragrafotan banatuta. Atal bakoitza, bisita birtualean txertatuko ditugun lau leku hauetan dauden arrokei buruzkoa izango da:
 - **Basatoak**, Uarkan daudenak bezalakoak ([Euskadiko interes geologikoko 42. lekuan](#)).
 - **Kareharriak**, Ereñon daudenak bezalakoak ([Euskadiko interes geologikoko 15. lekuan](#)).
 - **Ofitak**, San Antonio hondartzan daudenak bezalakoak ([Euskadiko interes geologikoko 13. lekuan](#)).
 - **Hareharriak**, Matxitako lurmuturrean daudenak bezalakoak ([Euskadiko interes geologikoko 22. lekuan](#)).
- Arroka bakoitzari buruz hau azaldu beharko duzue:
 - Zer motatako arroka da (sedimentarioa, magmatikoa edo metamorfikoa)?
 - Nola eratu zen arroka hori?
 - Zer aro geologikotan sortu zen?
 - Zein dira arroka mota horren erabilera posibleak (laburtuta)?
- Arroka mota horren argazki bat txertatu, gero ibilbide birtualean erabiltzeko.
- Ziurtatu idatzitako hitz guztiak ulertzen dituzuela. Horretarako, hitz ezezagunak bilatu Interneten, eta, hala ere, ez baduzue zerbait ulertzen, galdetu irakasleari.
- Testuaren ondoren, hau gehitu behar duzue dokumentuan:
 - Ezezagunak ziren hitzen zerrenda eta hitz bakoitzaren azalpen ulergarria aldamenean.
 - Informazioa eskuratzeko erabili dituzuen web-orri guztien helbideak idatzi.
- Osatu testua taldean, eta irakasleari erakutsi lehen zuzenketa egin dezan. Egin beharreko zuzenketak egin ondoren, prestatu behin betiko testua eta audioak grabatu.